

Urtero antolatzen du Cerda institutuak

## **EROSKI-REN "DIVERHORTALIZA" EKIMENA DA BERRIKUNTZA PROIEKTU NABARMENDUETAKO BAT 2020KO KONTSUMO HANDIKO BERRIKUNTZEN BEHATOKIAN**

- EROSKIren proiektuarekin guztira hogei proiektu aurkeztu dituzte Nekazaritza, Arrantza eta Berrikuntza Ministerioaren Ekitaldi Aretoan Madrilen
- "Diverhortaliza" plana diruz lagundu dute Eusko Jaurlaritzak eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (FEADER) eta parte hartu dute NEIKER Tecnalia zentro teknologikoak eta tokiko ekoizle kooperatiba anitzek
- Labore berriak dibertsifikatzea eta era jasangarrian lantzea dira aurten amaituko den ekimen horren ardatz nagusiak

Elorrio, 2020ko otsailaren 18a.- [Espainia 2020 Kontsumo Handiko Berrikuntza Behatokiak](#), Cerda institutuak urtero antolaturik, EROSKIren "Diverhortaliza" proiektua nabarmendu du gaur goizean, Nekazaritza, Arrantza eta Berrikuntza Ministerioaren ekitaldi aretoan izan den aurkezpenean Madrilen. Hirugarren urtez antolatu duten honetan, Berrikuntza Behatokiak erronka berriak azaldu ditu, eta sektoreko hogeit hamar proiekturik berritzaileenak aurkeztu; horien artean da EROSKI ekimena. Hala, Asun Bastidak, EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, honela hitz egin du haren gainean: *"Kooperazioa eta ikerketa uztartuta, tokiko aldaeren ekoizpena ugaritzeko moduan gara Euskal Autonomia Erkidegoan, zeinak ingurune eta klima baldintza konplexuak baititu"*.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizleekin lankidetzan egindako proiektu bat da "Diverhortaliza" ekimena; helburua da baratzegintzak hemen duen errentagarritasuna hobetzea hura dibertsifikatuta eta labore berriak era jasangarrian landuta. Plana diruz lagundu dute Eusko Jaurlaritzak eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (FEADER) eta bazkide gisa parte hartu dute NEIKER Tecnalia zentro teknologikoak eta tokiko ekoizle kooperatiba anitzek.

Lehen fasean, EAEn interes komertzial handiena duten laboreak hautatu dituzte; ondoren, ekoizle partaideen lurzoruak analizatu dituzte, eta labore horien baldintzetara ondoena egokitzen diren haziak eta aldaerak bilatu dituzte. Gaur egun, landa probak egiten ari dira, eta produktu eta aldaera batzuei balekoa ematen, eta aldi berean beste batzuk baztertzen. 2020an amaituko da ekimena,

---

### EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### EROSKI – PRENTSA BULEGOA

#### CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



eta ordurako, aldaerarik eta laborantzako erarik onenak identifikatuta izango dituzte, porruak, brokoliak, berenjenak eta eskarolak ekoizteko. Hala diote proiektuko arduradunek 2019an egindako azterketen emaitzetan oinarrituta.

*"Berrikuntza aintzat hartzen du proiektu honek, alderdi askotatik, eta lana antolatzeke era berriak dakartza, era kolaboratiboak hornitzaileekin eta bezeroekin; horrek, hala, ekoizpen bide berriak ekarriko ditu, eta merkatuan produktu berriak sartzeko balioko du",* esan du EROSKIren tokiko Ekoizpenetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

### **Tokian-tokian babesa ematea nekazaritza arloko elikagaien sektoreari**

Kooperatiba bere dendetan bultzatzen ari den Zurekin ereduak asko laguntzen du tokiko nekazaritzaren ekoizpen ehuna dibertsifikatzen, bai eta sektorea iraunarazten eta denda guztien ingurune hurbileko ekonomia, kultura eta paisaia indartzen ere. Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako elikagaien 300 ekoizle txikirekin dihardu EROSKI, 2.000 produktu baino gehiago saltzen. Erosketak egiten dizkie epe erdiko eta luzeko akordioen bitartez, eta horrek egonkortasuna dakarkio nekazaritzako elikagaien sektore jasangarri eta oso dibertsifikatu bati. EAEko sektore ekonomiko guztiak aintzat hartuta, EROSKI 1.900 hornitzaileekin ari da lanean, eta 650 milioi eurotik gorako erosketak egiten dizkie urtero.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)